

1897

Euskal-itx jostaldien Batzarrea

(Euskal-fësten XVI-garren urtea)

BEDEINKATUA IZAN DEDILLA

BETI TA BETI PAKEA



(Moldizkiratua izatea Oyarzunen irabazitako moldaera)

Guda gaiztoak erru charra du
bere ondoren ekartzen,
aserrea ta gorroto charra
diradelako elkartzen;
negarra, pena ta naigabea
du bazterretan zabaltzen,
lenago ondo diran lekuak
zapuzturik ditu galtzen,
iñola ere gozakairikan
nai arren ez da billatzen.

Gizonak zenbat sufritzen duben
guda bat sortzen danian,
bere eche ta lur maitatuak
laja bear diranian;
samintasuna sartutzen baita
biyotzaren barrenian,
pentsaturika ¡gizarajoak!
noiz nai, uste eztanian,
beren biziya galduko dala
usterik guchienian.

Pake santua, zu zera goitik
bedeinkatutako itza,
luza-arazten dezu gizonen
atsegiñezko bizitza;
ondasun eta gozagai ona
beti banatzen zabiltza;
zu zera belar sendakariya,
zu zera menda portitza,
itz batian, zu zera munduko
poztasun guztiyen giltza.

Pakerik gabe, lur onak ere
ez du izaten gozorik,
erru char guztiz kaltegarriyak
beti dauka easorik;
zañetatikan zumua janaz
ez du lajatzten osorik.
Pake ederra danian berriz
lore guztiyak pozturik,
egoten dira Egilleari
beren buruak jasorik.

Bazter alayak, lur loratuak,
 dira osoro ageri,
 eguzkiyaren dizdirazuak
 argi egĩñaz berari;
 chori chikiyak adar puntetan
 beren izkuntzan kantari,
 errekachoak ura jarraitzen
 zuzen bere bideari,
 eta gizonak esker ematen
 biyotzez Egilleari.

¡Zer atsegiña, zer poz bidea
 zer paketasun gozua!
 ¡zer alaitasun pare gabea!
 ¡zer izaera dontsua!
 ¡zer gozaera maitatiya ta
 zer izan-kai-eztitsua!
 au da biyotza lasaigarriya
 on guztiyaren putzua,
 ¡au da Pakea! mundu ontako
 zoriontasun osua.

Ondasunaren zumu gozoaz
 beterik zera arkitzen,
 eguzkiyaren errañu gisa
 dituzu lurrak argitzen,
 zoriontasun chit eztitsua
 dituzu gugan banatzen,
 zure mesedepean guztiyak
 gozoro gera azitzen,
 eta gañera anaitasun ta
 maitasunian bizitzen.

Doatsua ta eztiya zera
 kutsu charrikan gabea,
 atsegiñ, poza, alaitasun ta
 gozotasunez betea;
 guda zakarren malko zapiya,
 okerrak zuzentzallea,
 askatzen dezu katetasuna
 eta arindu nekea.

.
Bedeinkatua izan dedilla
beti ta beti,

Pakea.

JOSÉ ARTOLA.

